

Legutioko saihsbidea amaitu da, 5,6 milioi euroko inbertsioa eginda

Legutioko erdialdetik atera du Aramaiora doazen eta handik datozen ibilgailuen zirkulazioa

Jon Nogales: "Saihsbide berriak Legution bizi direnen bizi kalitatea hobetzen du, barneko trafikoa murrizten duelako eta hiriguneko segurtasuna handitzen duelako."

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urtarrilaren 12a.- Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak amaitu ditu A-2620 eta A-623 errepideak lotzen dituen Legutioko saihsbide berriaren obrak, Aramaiora doazen edo handik datozen ibilgailuek Legutioko erdialdea zeharkatu beharrik ez izateko eginak. Saihsbidea egiteko 5,6 milioi euroko inbertsioa egin da.

Jon Nogales Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatuak obra amaierako bisita egin du gaur goizean, Marian Gutiérrez Bide Azpiegituren zuzendariarekin eta Nerea Bengoa Legutioko alkatearekin batera, eta Arabako Errepideen 2016-2027 Plan Integralaren «Hiri saihsbideen» programaren barruan sartzen den esku hartze horren gune garrantzitsuenetatik ibili da.

Nogalesek nabarmendu du saihsbide berriak Legution bizi diren arabarren bizi kalitatea hobetzen duela, obra horri esker hirigunetik kanpo atera baita Aramaion jatorri eta helmuga duten ibilgailuen zirkulazioa, dozenaka kamioiena barne, orain arte egunero herriaren erdialdea zeharkatzen baitzuten. Eta trafiko gutxiago izateak zarata eta eragozpen gutxiago izatea esan nahi du, eta lasaitasun eta segurtasun handiagoa izatea Arabako gune horretan bizi direnentzat".

"Gainera, esku hartze horri esker, hirigunea zeharkatzen duen A-2620 errepidearen zatiaren titulartasuna Legutiori lagako zaio, Karmen kalearen erdiko zatia oinezkoentzat bihurtzeko lanak egiteko", gehitu du.

2016-2027 aldirako Arabako Errepideen Plan Integralak planifikatuta dauka A-2620 errepidean Legutioko saihsbidea eraikitzea eta A-623 errepidearekin lotzea, 'Hiri saihsbideak' programaren barruan, orain arte Legutioko hirigunetik igarotzen zen zeharbidea kentzeko. Saihsbide hori autoek eta kamioiek erabiltzen zuten, Krutzetako mendatetik zehar Aramaiorekin komunikatzeko igarobide gisa.

Horrela bideratzen zen, proiektu hau gauzatu aurretik, N-240 errepidetik A-2620 errepiderako trafikoa. Karmen kalean dagoen bidegurutze baten bidez egiten zen, eta zirkulazio noranzko bakarra zuen. A-2620 errepidetik N-240 errepideranzko trafikoa Santa Engracia kaletik bideratzen zen, bi noranzkoetan; kale hori, 400 metro aurrerago, bigarren bidegurutze batera joaten zen.

Kilometro bateko luzera duen saihesbide berriak zuzenean lotzen ditu A-2620 errepidea eta A-623 errepidea, Otxandioranzko irteeraren hasierako zatian, eta trafiko guztia N-240 errepiderantz bideratzen du, errepide horren eta A-623 errepidearen arteko bidegurutzearen bidez. Gainera, Udalak eta Legutioko Administrazio Batzarrak egindako eskaerari erantzunez, lotunea egin da iparraldean, herritik igarotzen diren ibilgailu astunen kopurua gutxitzeko.

Legutioko saihesbidearen iparraldeko lotura osatzeko, zuzeneko adar bat gehitu da saihesbidetik Legutiorantz, eta noranzkoa aldatu da A-623tik Legutiorako eta Legutiotik A-623rako mugimenduak egin ahal izateko.